

KE/AICE-IZEA SINATUTAKOA ONARTU ETA BETE EZAZUE!

Kristau Eskola eta AICE- IZEA patronalek berriro ere, epaitegietara eraman dute tutoretza osagarria bertan behera uzteko eskaera. Eraso honen aurrean LAB sindikatuak langileen eskubideak defendatzen jarraituko dugu kalean nahiz epaitegietan.

Tutoretza osagarria bertan behera uzteko lehenengo saiakera epaitegietan, 2021eko abenduaren 2an egin zuten patronalek. Kasu hartan, epaileak eskaera ez zela zuzen egin eta zuzenketa egiteko epe bat eman zien patronalei, ondorioz hitzarmeneko artikulua bere horretan mantentze da gaur gaurkoz eta indarrean dago.

Baina patronalek ez dute amore eman eta otsailaren 15ean berriro epaiketa izango dugu Gizarte Ekimeneko langileok. Oraingo honetan patronalek tutoretza osagarria arautzen duen tutoretza osagarria partzialki bertan behera eskatu dute, HH 1.zikloa eta Lanbide Heziketako etapetako osagarri hori ez zela negoziatu argudiatuz, eta partzialki ezin bada artikulua osotasunean bertan behera uzteko eskatu dute.

Eraso larri honen aurrean, LAB sindikatuak langileok antolatu eta gure eskubideak defendatzeko dei egiten du. Horretarako, **otsailaren 15ean bertan, Euskadiko Auzitegi Gorenaren aurrean kontzentrazioa egingo dugu .**

LAB sindikatuak patronalek egin duten eraso hau oso larria dela deritzo, hori dela eta, langileei bertaratzeko deia egiteaz gain, Gizarte Ekimeneko sindikatuarekin ere harremanetan jarri gara, guztiok bat egin eta elkarrekin gure eskubideak defendatzeko eta patronalei argi uzteko, erasoan aurrean parez- pare izango gaituztela.

ANIMO ETA AURRERA!